

2026. urteko dirulaguntzen deialdia

Eremua: Garapen iraunkorrerako eta elkartasun globalerako lankidetza

Dirulaguntzen 6. lerroa: Sentsibilizazioa, gizarte-eraldaketarako hezkuntza – urte biko programak

1. artikulua.- Eremua eta xedea

Giza Eskubideak, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasun Sailak, Garapenerako Lankidetzaren eta Giza Eskubideen eremuaren barruan, "Sentsibilizazioa, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza – Urte biko programak" izeneko dirulaguntza lerroaren bidez, dirulaguntzak emateko deialdia egiten du, gizarte-eraldaketarako eta herritartasun globalerako hezkuntzaren arloan proiektuak eta programak finantzatzeko eta garapenerako lankidetzaren eta giza eskubideen arloan sentsibilizatzeko. Horrela, Bilboko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzen du, "Bilbon balioen garapena sustatzea, besteak beste, elkartasuna, emakumeen eta gizonen berdintasuna, genero-indarkeria desagerraraztea, lankidetza eta kulturarteko eta belaunaldien arteko bizikidetzaren".

Deialdi honetara aurkeztutako ekimenek helburu hauek izan behar dituzte: batetik, Bilboko herritarrengan kontzientzia kritikoa sortzea garapen jasangarriaren dimentsio globalei buruz, eta, bestetik, maila globalean desberdintasunak sortzen dituzten egiturazko kausak ulertzen laguntzea. Proiektuek tokiko interkonexio globala agerian jarri behar dute, tokiko dinamikek eta ekintzek beste gizarte batzuen egoeran, bereziki gutxien garatutako herrialdeetan, eragina eta ondorioak dituztela erakutsiz. Halaber, elkartasunaren, justizia globalaren, berdintasunaren eta giza eskubideen balioetan oinarritutako kultura sustatu behar dute.

Jarduerak egiteko epea 2027ko abenduaren 31n amaituko da.

Gehieneko dirulaguntzak proiektu bakoitzeko: 8.000 eurotakoa da urtero (16.000 € osotara).

2. artikulua.– Aplikatu beharreko araudia.

Eskabideak ebazteko prozedurak honako arau hauek bete beharko ditu:

- Bilboko Udalak, haren organismoek eta zuzenbide publikoko entitateek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Lege Orokorra eta lege hori garatzen duen erregelamenduzko araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

Era berean, dirulaguntzei buruz lege eta dekretu hauetan xedatutakoa aplikatuko da:

- 188/2025 Errege Dekretua, martxoaren 11koa, garapen iraunkorrerako lankidetzaren eta elkartasun globalaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategia onartzen duena.

- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa; zehazki, I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa; zehazki, II. Titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa.

3. artikulua.- Entitate onuradunak

3.1. Baldintza hauek betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteek eskatu ahal izango dute dirulaguntza:

- a) Egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra Bilbon edukitzea laguntza hauek eskatu baino bi urte lehenagotik, gutxienez, eta agiri bidez egiaztatzea hori.
- b) Estatutuetako helburuen artean gizarte-eraldaketarako eta sentsibilizaziorako hezkuntza edo giza eskubideen defentsa eta sustapena izatea, garapenerako lankidetzaren eremuan, bai eta deialdi honen xedearekin bat datozen jarduerak garatzea ere.
- c) Deialdi honen xede diren jarduerak bultzatzen presentzia aktiboa izatea Bilbon.

Ondorio horietarako, udalerrian presentzia aktibo izatea ulertuko da azken bi urteetan entitatearen eremutik kanpoko jardura zabal eta publikoak egin izana, esaterako, hauetako batzuk:

- Sentsibilizazio- eta elkartasun-kanpainak.
 - Prestakuntza- eta/edo sentsibilizazio-jarduerak ikastetxeetan, gizarte-erakundeetan, auzo-elkarteetan eta abarretan.
 - Deialdi honen eremuarekin lotutako erakusketak.
 - Ikerlanak eta/edo testuak, gida didaktikoak, artikulak, erreportajeak eta azterlanak argitaratzea, betiere gaiarekin lotuta.
 - Bilboko Udaleko Lankidetzarako Udal Kontseiluko kide izatea eta haren jardueretan parte hartzea.
- d) Deialdi honen ebazpena ateratzen denerako, 2024ko edo lehenagoko Dirulaguntzen Deialdiei dagozkien dirulaguntzak justifikatuta eduki beharko ditu entitate eskatzaileak. Organo eskudunak ebazpen bidez ezetsiko ditu baldintza hori betetzen ez duten dirulaguntza-eskaerak.
 - e) Eskatzaileak ezin izango du dirulaguntzarik eskatu Gizarte Eraldaketarako eta Sentsibilizazioaren arloko udal-garapenerako lankidetzaren 2026ko aurrekontuan dirulaguntza izendunerako hitzarmena badu programa berdinerako.
 - f) Entitateen partzuergoek (edo izaera juridikorik gabeko elkarteek) ere eska dezakete dirulaguntza. Elkartearen ordezkari gisa erakunde bat izendatu beharko dute, ahalorde askietsiak dituen, elkarteari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko. Entitate ordezkari honek aurreko puntuetako betekizun guztiak bete

beharko ditu eta hark izango du partzuergo edo elkartearen ordezkaritza administrazio-espedituean. Eskaeran, partzuergoa eta erakunde kide bakoitzak bere gain hartutako egikaritze-konpromisoak jasotzen dituen dokumentu bat jaso beharko da. Partzuergo-elkartea ez desagiteko konpromisoa formalizatu beharko dute, preskripzio epea igaro ez den artean, dirulaguntza jaso ahal izateko. Kide diren erakunde guztiek proiektua gauzatzeko hartutako konpromisoak jaso beharko dira eskabidean.

Partzuergoko kide guztiek 3.3 artikuluko baldintzak bete beharko dituzte.

- g) Erakunde eskatzaileak, deialdiaren aurreko 4 urteetan, Sentsibilizazio, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza eta Giza Eskubideen arloan gutxienez proiektu bat gestionatu dituela Bilboko Udalak Diru laguntzen Deialdiaren barruan emandako diru laguntzen kargura, eta erakunde arduradun edo partzuergo baten kide modura jardun duela.

3.2. Entitate eskatzaileek Bilboko Udalaren Herritarren Partaidetzako Erakundearen Erregistroan (Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Sailean dago, Venezuela plaza. 2, 4) izena emanda egon behar dute eta datuak eguneratuta eduki behar dituzte.

Salbuespen gisa, udalerrian egoitza soziala ez duen eta, beraz, udal-erregistro horretan sartzeko aukerarik ez duen elkarte batek dirulaguntza eskatzen badu Bilbon jardueraren bat egiteko, Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan inskribatuta egotea eskatuko zaio.

3.3. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte entitate eskatzaileek eskaera aurkeztu den unean, dirulaguntza ematean, betebeharra onartzean eta ordaintzean ere bai.

4. artikulua.- Aurrekontu-kredituak

4.1. Deitutako diru-laguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu kodearen PEP 2015/00171, 2026 eta 2027ko ekitaldirako onartutako 2015 32000 4 00171 00 2026 gastu-proiektuaren kontura finantzatzeko dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa 63.904 (31.952 € 2026 ekitaldirako eta 31.952 € 2027 ekitaldirako) eurokoa izango da.

4.2. Deialdiaren onarpen-egunetik dirulaguntza eman arteko epean ekonomiaren egoerak okerrera egiten badu, zenbateko hori gutxitu ahal izango da defizitean ez erortzeko, betebeharrak hori ezarri baitzitzaie administrazio publikoei Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan, eta ondorioz behar diren egokitzapenak egin beharko dira aurrekontuan.

5. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

5.1. Norgehiagokako erregimenean ezarri da dirulaguntza-lerro honetako dotazio ekonomikoa. Aurkeztutako eskabideak erkatu eta horien lehentasun-ordena ezarriko da, 9. artikuluan agertu diren irizpideen arabera. Horrela, baloraziorik onena izan duten

eskabideei dirulaguntza emango zaie, deialdian ezarritako aurrekontua inola ere gainditu gabe.

5.2. 5. lerro honetan onartutako dirulaguntzen zenbateko osoa horretara bideratutako zenbatekoa baino txikiagoa bada, soberakinak 2025/00089 PEPer (5. lerroa) bideratutako zenbatekoa handituko du. Sentsibilizazioa, gizarte-eraldaketarako hezkuntza - urteko programak

5.3. 60 puntuko gutxienekora helduta, programa bakoitzak lortutako puntuazioari aplikatuko zaion ehuneko baten arabera kopurua emango da dirulaguntza gisa, honako taula honekin bat etorrira:

Programari emandako puntuak	Emango zaion dirulaguntzaren ehunekoa (%)
80 puntu baino gehiago	Eskatutakoaren % 100
70 eta 80 puntu bitartean	Eskatutakoaren % 80
70 puntu baino gutxiago	Eskatutakoaren % 70

6. artikulua.- Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Dirulaguntza eskatzen duten programek baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Balioetan hezteko proposamen bat aurkeztea, epe ertain eta luzera pertsonak prestatu eta eraldatuko dituen, maila globalean desberdintasunak sortzen dituzten egiturazko kausak uler ditzaten eta horiei buruz gogoeta egin dezaten, ikuspegi lokal-globaletik eta erantzukidetasunaren ikuspegitik.

Era berean, hezkuntza-proposamen honek gizarte-aldaketaren alde egin behar du, bai maila indibidualean bai kolektiboan, giza eskubideak errespetatzen dituen eta garapen jasangarriarekin konprometitu dagoen mundua lortze aldera.

Illo horretan hezkuntza formaleko eta/edo ez-formaleko proiektuak aurreikusten dira, eta horiek gauzatzeko, besteak beste, prestakuntza-ikastaroak, gaikako kanpainak, informazio-hitzaldiak eta kaleko ekintzak egitea. Kanpoan geratzen dira didaktika- edota informazio-argitalpenen itzulpenak, ezta entitatea bera indartzeko proiektuak ere.

- b) Indarrean dagoen ekitaldi-aurrekontuan hasi behar dira proiektuak, edo transferentzia ordaindu zenetik 2 hilabete igaro baino lehen.
- c) 2027ko abenduaren 31 baino lehen amaitu behar dira.

Bilboko Udalak berariaz baimentzen badu, epe hori luzatu ahalko da, justifikatutako arrazoiengatik.

- d) Deialdi honen bidez, Bilboko Udalaren finantzaketa, guztira, proiektuaren kostu osoaren % 100ekoa izan daiteke. Ez da inolako balorizaziorik onartuko.
- e) Programan diruz lagundutako kontzeptuak gastu arruntari atxikitakoak izango dira, eta ez kapital-ondasunei lotutakoak (ekipo informatikoak, eta abar).
- f) "Langile-gastuak" partidari dagozkion gastuek ezin izango dute gainditu aurrekontu osoaren zuzeneko kostuen % 75.

- g) Proiektua gauzatzeko lankidetzan arituko diren gizarte-erakundeek eta/edo ikastetxeek sinatutako dokumentu bat izatea, horietan parte hartzeko interesa eta konpromisoa jasoz.
- h) Genero-ikuspegia txertatu behar dute fase guztietan, hau da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuari buruzko xedapenak bete behar dituzte, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian desberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketara espezifikoa txertatzea.

Ildo horretan, proiektuetan zaindu behar da hizkera eta irudi ez-sexistak eta estereotipatuak erabiltzen direla.
- i) Proiektuak igortzen dituen mezuek eta irudiek GKEen Koordinakundearen 1998ko Jokabide Kodea bete behar dute. Kode hori Bilboko Lankidetzako Udal Kontseiluaren Araudian eranskin gisa ageri da.
- j) Proiekturako erabiliko den edozein komunikazio-materialek Bilboko Udalaren logotipoa izan behar du, ikusteko moduan, Giza Eskubide, Bizikidetzak, Lankidetzak eta Immigrazio Sailak horri buruz emandako jarraibideen arabera. Erakunde onuradunak material hori aldeztu aurretik ikuskatzeko ahalmena emango dio Udalari. Betekizun hau betetzen ez bada, onartutako dirulaguntza itzultzeko prozedura abian jar daiteke.
- k) Lankidetzan aritzea Bilboko Udalarekin, edo Bilboko Lankidetzaren Udal Kontseiluarekin edo egoki irizten den beste entitate baten batekin, herritarrei proiektuaren garapenaren berri emateko, eta sentsibilizazioari eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzari eta herritartasun globalari buruz bihar-etzi elkarrekin antola litezkeen jardueretan parte hartzea.

7. artikulua.- Eskaerak

7.1. Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea, eta 2026ko otsailaren 20an amaituko da.

7.2. Informazioa eta dokumentazioa.

Deialdi honi buruzko informazio eta dokumentazio guztia leku hauetan egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren webgunean (www.bilbao.eus)
- Bilboko Udalaren gardentasun atarian (www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/eu/inicio).
- Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (www.infosubvenciones.es)."
- Bilboko Udaleko Herritarrentzako Arreta Bulegoan eta barrutietako udal-bulegoetan, ohiko ordutegietan.

7.3. Bideratzea

Eskaerak Udalaren webgunearen bidez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaera **Udalaren webgunearen** bidez izapidetuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eta datu guztiak eman beharko dira.
- Eskaerak **udal-erregistroan** aurkeztuz gero, eskaera-orri bat bete beharko da eremu eta dirulaguntza-lerro bakoitzeko, Bilboko Udalak emandako ereduak erabiliz.

Eskaera-orri horretan, erakunde eskatzaileak zehaztuko du zer programa aurkezten dituen dirulaguntza-lerro horretara, lerro horretan diruz laguntzeko modukotzat zehazten diren kontzeptuen arabera.

Eskaera-orria Herriarren Arreta Bulegoan edo barrutietako udal bulegoetan aurkez daiteke, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren legezko beste leku batzuetan ere.

7.4. Erakundearen legezko ordezkaritza edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanez adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko debekuetako bat ere ez duela (Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan ezartzen dira debekuok).

7.5. Dirulaguntza-eskaerak ezin izango dira programa bati emateko ezarritako gehieneko zenbatekoa baino handiagoak izan. Gehieneko zenbateko hori diruz lagundu daitekeen kontzeptu bakoitzerako ezartzen da.

7.6. Era berean, eskaera guztietan kontuan izan behar da dirulaguntzen bidez nahiz beste iturri batzuetatik eskuratzen den finantzaketa osoak ezin izango duela gainditu aurkeztu den programaren kostua.

7.7. Bilboko Udalak egoki iritzitako argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei, aurkeztutako eskabidea hobeto baloratzeko.

7.8. Programa bakoitza dirulaguntza-lerro baterako bakarrik aurkeztu beharko da.

7.9. Eskaera egiten duen entitate bakoitzak programa bakar bat aurkeztuko du Garapenerako Lankidetzaren eremuaren 5. eta 6. lerroetarako.

8. artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

8.1. Eskaera Udalaren webgunearen bidez izapidetzen bada, dokumentu bi erantsi beharko dira PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "Sentsibilizazioko eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuei laguntzeko

eskari-orria (2026. urtea) – 5. eta 6. lerroak” deritzon ereduaren arabera. Dokumentu honek, gehienez ere, 15.000 hitz izango ditu.

- Erakundeak aurreko urtean egindako jardueren memoria.

8.2. Eskaera **udal erregistroan** aurkeztu bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Programa bakoitzaren laburpen-fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, “Sentsibilizazioko eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuei laguntzeko eskari-orria (2026. urtea) – 5. eta 6. lerroak” deritzon ereduaren arabera. Dokumentu honek, gehienez ere, 15.000 hitz izango ditu.
- Erakundeak aurreko urtean egindako jardueren memoria.

8.3. Eskaera sinatzen duenak Bilboko Udalari baimena ematen dio betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainketa egunean daukan egiazta dezan. Dena dela, ez baimentzeko aukera izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

8.4. Bilboko Udalaren dirulaguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden entitateek “hartzekodunen fitxa” aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta (fitxa hori eman egingo zaie).

8.5. Elkarrekin ez diren irabazi-asmorik gabeko erakundeek 3.1 artikuluan ezarritako betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- Entitatearen estatutuak.
- Dagokion erregistroan izena emanda egotea egiaztatzen duen agiriaren kopia.
- Erakundeak egoitza nagusia edo ordezkaritza Bilbon duela egiaztatzen duen agiria.

8.6. Eskabideak ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, ez badago behar bezala formalizatuta edo aipatutako datuen bat edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **eskatuko zaio akatsak zuzentzeko 10 egun balioduneko epe luzaezinean**, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, administrazio-prozedura legean aurreikusitako moduan eman beharko den ebazpena eman ondoren.

9. artikulua.- Balorazio irizpideak

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauen arabera baloratuko dira:

A) ENTITATEA baloratzeko irizpideak GUZTIRA 15 puntu

Zuzendaritza Batzordearen osaera (puntu 1 gehienez)

Bazkide eta boluntario kopurua, eta haien osaera guztira (sexuaren arabera bereizita) (gehienez 2 puntu)

- ≥ 200 pertsona (2)
- [100-200) pertsona (1,5)
- [50-100) pertsona (1)
- [20-50) pertsona (0,75)
- [5-20) pertsona (0,5)

Koordinakunde, udal-kontseilu, federazio, auzo-sare eta bestelakoetan parte hartzea (gehienez 2 puntu)

- Bilboko Udalaren Lankidetzarako Udal Kontseiluan parte hartzea (1)
- Beste udal-kontseilu batzuetan parte hartzea (0,5)
- Euskadiko GGKEen Koordinakundean parte hartzea (0,5)
- Beste batzuk (gehienez 0,5 puntu)

Partzuergoa (gehienez 3 puntu)

- Bi eragileren edo gehiagoren arteko partzuergoa, zeinetan gutxienez bat agente ez-tradizionala den (3)
- Eragile tradizional bi edo gehiagoren arteko partzuergoa (GGKEak, hezkuntza-komunitateak, hezkuntza formaleko eragileak) (2)

Genero-ikuspegia entitatearen barne lanean (puntu 1 gehienez)

- Entitateak berdintasun-plana edo genero-politika dauka (0,5)
- Erakundeak sexu-jazarpenaren eta jazarpen sexistaren aurkako protokoloak ditu (0,5)

Proposatzen den eremuan proiektuak egiteko esperientzia eta kudeaketa-gaitasuna (gehienez 2 puntu)

- Azken 5 urteetan, dirulaguntzen deialdi honekin lotutako sei proiektu baino gehiago gauzatzeko finantzaketa lortu du (2)
- Azken 5 urteetan, dirulaguntzen deialdi honekin lotutako lau eta sei proiektu bitartean gauzatzeko finantzaketa lortu du (1,5).
- Azken 5 urteetan, dirulaguntzen deialdi honekin lotutako gutxienez hiru proiektu gauzatzeko finantzaketa lortu du (1)

Esperientzia Bilboko Udalaren dirulaguntzen kudeaketan (puntu 1 gehienez).

- Esperientzia Gizarte Eraldaketarako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzako eta Nazioarteko Lankidetzako proiektuetan (1)
- Esperientzia udaleko beste sekzio batzuetako proiektuetan (0,5)

Bilboko Udalak finantzatzeko ekintzen jarraipena, prozesuari balioa eman badiote (1,5 puntu gehienez)

Proiektua erakunde eskatzailearen lan-ildoetan eta plan estrategikoetan lerrokatzea (gehienez 1,5 puntu)

B) PROGRAMA baloratzeko irizpideak..... GUZTIRA 85 puntu

1) AURREKONTUA10 puntu gehienez

Aurrekontua eta eskatutako dirulaguntza proiektuko helburuei eta jarduerari egokitzea (7 puntu gehienez)

Aurrekontuaren azpipartiden eta jardueren arabera banakatuta, eta kostuen justifikazioa (gehienez 3 puntu)

2) PROGRAMAREN KALITATEA10 puntu gehienez

Programaren justifikazioaren, helburuen eta ekintzen arteko koherentzia (3 puntu gehienez)

Helburuen, jarduerak eta emaitzak zenbateraino azaldu diren baloratuko da, baita koherentzia eta proiektuaren helburu orokorra eta espezifikoak lortzeko egiten den ekarpena ere.

Espero diren emaitzak eta eragina (gehienez 2 puntu)

Proiektuaren jarduerak xede duten kolektiboaren kontzientzia kritikoa eta ekiteko eta parte hartzeko gaitasuna sortzea baloratuko da. Halaber, elkartasunaren, justizia globalaren, berdintasunaren eta giza eskubideen balioetan oinarritutako kultura sustatzea espero da.

Objektiboki egiazta daitezkeen adierazleen definizioa eta kalitatea (puntu 1, gehienez)

Adierazleak eta egiaztapen-iturriak sartzeari baloratuko da.

Ebaluazio eta/edo sistematizazio bat sartzeari (barnekoak izan daitezke) (puntu 1 gehienez)

Proiektuaren ebaluazioa eta/edo sistematizazioa egitea baloratuko da, bai eta erakunde eskatzaileak proiektuaren jarraipenari buruz egindako azalpena ere.

Proiektuaren jasagarritasuna (puntu 1, gehienez)

Proiektuaren jarraipena erraztuko duten mekanismoak edo tresnak sartzeari baloratuko da.

Kanpo komunikazioa eta hedapen-sistemaren definizio maila (2 puntu gehienez)

Komunikazio-estrategia baloratuko da, baita jarduketak-gaiarekin zerikusirik ez duten kolektiboetara iristeko gaitasuna ere.

3) PROGRAMAREN INTERESA48 puntu gehienez

Proiektuak jorratzen duen esparruaren eta haren beharraren diagnostiko zehatza (gehienez 2 puntu)

Aldez aurreko diagnostikoa egitea baloratuko da, baita proiektuaren testuinguruaren eta errealitatearen azalpena ere.

Proiektuaren definizio eta justifikazio zehatza (gehienez 4 puntu)

Esku-hartzearen eremua, Sailak diagnostikatuta – Bat etortzea GJH hauetako batera bideratutako lehentasun sektorialekin: 4 (Kalitateko hezkuntza), 5 (Genero-berdintasuna), 6 (Ur garbia eta saneamendua), 11 (Hiri eta komunitate jasagarriak), 12 (Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak) eta 16 (Bakea, justizia eta erakunde sendoak) (gehienez 6 puntu)

IV. Gida Planeko zeharkakoak proiektuaren gaian sartzeari (gehienez 2 puntu)

Ikuspegi lokal-globala barne hartzen du, tokiko ekintzek, kolektiboek zein banakakoek, dinamika globaletan eragina dutela frogatuz, bereziki gutxien garatutako herrialdeetan (6 puntu, gehienez)

Tokiko esku-hartzeak kausa globalarekin duen lotura baloratuko da, baita onuradunek globalarekin lotuta tokiko mailan jardutea sustatzeko gaitasuna ere. Era berean, jakintzen trukea sustatzen duten proiektuak baloratuko dira.

Proiektuak desberdintasunen egiturazko kausak aztertzea eta ulertzea errazten du (gehienez 4 puntu)

Eskubideen ikuspegia txertatzea (2 puntu gehienez)

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Proiektuak parte-hartzaile guztiak aitortzea, batez ere onuradunak - beren garapenean ezinbestekoak eta aktiboak diren aldetik-, beren eskubideak bereganatzeko eta aldarrikatzeko gai direnean, ondasunen eta zerbitzuen hartzaile hutsak izan gabe.
- Nazioarteko estandarrak eta giza eskubideen printzipioak proiektuaren fase guztietan txertatuta egotea, eskubide horiek errespetatu, sustatu eta babestuko dituen prozedura bermatuz.

Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeko estrategiak indartzen dituzten osagaiak sartzea (3 puntu gehienez)

Proiektuak ingurumeneko eta jasangarritasuneko gaiei buruzko kontzientzia bultzatzen du (puntu 1,5 gehienez)

Identifikazioan eta exekuzioan parte hartzen duen kolektiboa (2 puntu gehienez)

Hegoaldeko erakunde globalek, minorizatutako kolektiboek eta eskubideak urratuta dituzten subjektuek parte hartzea baloratuko da.

Zein kolektibori zuzentzen zaion (3 puntu gehienez)

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Proiektua ahalmen biderkatzailea eta/edo eraldatzailea duten kolektiboetara eta/edo pertsonetara iristea.
- Proiektua horrelako ekintzen ohiko hartzaile ez direnengana iristea.
- Proiektuak Iparraldeko eta Hegoaldeko xede-biztanleria globala barne hartzea.

Beste erakunde sozial batzuekin lan koordinatua egitea (etorkinekin, emakumeen elkarteekin, talde feministekin, auzo eta kultur elkarteekin...) (6 puntu gehienez)

- Horrelako hiru elkarterekin edo gehiagorekin koordinatutako lana; horietako bat, gutxienez, emakumeen, feministen edo etorkinen elkarte bat izango da (6)
- Elkarte horietako hirurekin edo gehiagorekin lan koordinatua egitea (5)
- Horrelako bi elkarterekin edo gehiagorekin koordinatutako lana; horietako bat, gutxienez, emakumeen, feministen edo etorkinen elkarte bat izango da (4)
- Elkarte horietako birekin edo gehiagorekin lan koordinatua egitea (3)
- Horrelako elkarte batekin koordinatutako lana; elkartea emakumeen, feministen edo etorkinen elkarte bat izango da (2)
- Elkarte horietako batekin lan koordinatua egitea (1)

Lan-eremua (puntu 1, gehienez)

- Proiektua hezkuntza formalaren eremuan garatzen da (0,5)
- Proiektua hezkuntza ez formalaren eremuan garatzen da (0,5)

Hiriko espazioak (gehienez 1,5 puntu)

Udal-espazioak edo -zentroak erabiltzea baloratuko da, baita espazio berritzaileak eta ezohikoak erabiltzea ere.

Proiektuan lortu den publiko-aurreikuspenaren azalpena (puntu 1, gehienez)

Programa finkatzea (puntu 1 gehienez)

Metodologia berritzaileak erabiltzea (gehienez 2 puntu)

4) UDALAREN ZEHARKAKO GAIAK17 puntu, gehienez

Berdintasuna (gehienez 5 puntu)

Emakumeen eta gizonen egiturazko desberdintasuna kontuan hartzen duten programak, tokiko mailan eta maila globalean baliabideak eskuratu eta kontrolatzeari dagokionez, beren helburu eta/edo ekintzetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta/edo genero-indarkeria desagerrarazteko neurri zehatzak jasotzen dituztenak eta/edo

beren sexu- edo genero-identitateagatik gutxietsitako emakumeak edo kolektiboak ahalduz laguntzen dutenak.

Kulturartekotasuna (gehienez 2 puntu).

Kultura-aniztasuna eta migrazioei eta lurraldeko babesleku bereziki lotutako alderdiak kontuan hartzen dituzten programak, horiek aitortu eta ikusaraztera bideratutako helburuekin eta ekintzekin; berdintasuna sustatzera eta diskriminazioaren aurkako borrokara bideratutako programak; aniztasun-testuinguruetan elkarrekintza positiboa sustatzera begirako programak.

Gazteria (gehienez 2 puntu)

12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako programak.

Euskara (gehienez 4 puntu)

Proiektuko jarduerak euskara hutsean egitea baloratuko da. Atal honetan puntuak jasotzeko, euskararen erabilera bermatu beharko da, gutxienez gaztelaniaren baldintza eta maiztasun berberetan.

Desgaitasuna (gehienez 2 puntu)

Desgaitasun fisikoa, sentsoriala edo intelektuala duten pertsonen erabateko parte-hartzea errazteko jarduerak edo zerbitzuak jasotzen dituzten programak.

Osasuna (gehienez 2 puntu)

Portaera eta jokabide osasungarriak garatzen laguntzen duten programak, osasunean dauden desberdintasunak azpimarratuz.

10. artikulua.- Instrukzioa eta balorazioa

10.1. Prozeduraren instrukzio-organoa **Giza Eskubide, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasun Saileko Garapenerako Lankidetzaren** Sekzioari atxikitako langileek izango dira.

10.2. Kide anitzeko organo gisa jarduten duen balorazio-batzordea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritakoaren arabera, honako hauek osatuko dute:

Presidentea: **Giza Eskubideak, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasun Saileko zinegotzi ordezkaria.**

Idazkaria: **Giza Eskubideak, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasun Saileko zuzendaria.**

Kideak: Sekzioko burua

Garapenerako Lankidetzako teknikariak

10.3. Eskaerak ebaluatu ondoren, deialdi honetan ezarritako balorazio irizpideekin bat etorritik, Balorazio Batzordeak txosten bat emango du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

10.4. Balorazio Batzordearen txostenaren berri emango zaie Bilboko Lankidetzako Udal Kontseiluko Batzorde Betearazleari eta Garapenerako Lankidetzako Batzorde Berezi Mistoari, behin betiko ebazpen-proposamena egin aurretik.

10.5. Organo instrukzio-egileak, Balorazio Batzordearen txostena ikusita, behin betiko ebazpen-proposamena egingo du.

11. artikulua. Berririo formulatzea

Programa guztien balorazioa egindakoan, entitate bati eman beharreko diru-zenbatekoa ez badator bat eskatutakoarekin, arau hauek bete beharko dira, Bilboko Udalaren deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorraren 10.2 artikuluan ezarritakoaren arabera:

A) Eman beharreko dirulaguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, entitateak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, azken aurrekontu aldatu hori izango da justifikatu beharrekoa.

B) Eman beharreko dirulaguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da;

b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokituz, edo, bestela, dirulaguntzari uko egin beharko diola. Udalak, entitatearen berariazko erantzuna jasotzen ez badu, ulertuko du dirulaguntzari uko egitea erabaki duela.

12. artikulua.- Ebazpena

12.1. Gobernu Batzarrak ebartziko du prozedura.

12.2. Eskariak ebazteko eta eskaera egin duten entitateei jakinarazpena egiteko gehieneko epea sei (6) hilabetekoa izango da, deialdi honen argitalpen-egunetik aurrera. Dirulaguntza guztiak jakinaraziko dira: ematen direnak eta ematen ez direnak.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, dirulaguntzaren eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

12.3. Prozedura ebazteko erabakiaren aurka, zeinak administrazio-bidea amaitzen baitu, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da Gobernu Batzarraren aurrean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bestela, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegiaren aurrean, hilabete biko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kasu horretan ere.

13. artikulua.- Dirulaguntzak ordaintzea.

13.1. Orokorrean, dirulaguntzak ordainketa aurreratuaren bidez ordainduko dira, justifikatu aurretik, eta esleitutako dirulaguntzaren guztirako zenbatekoa ordainduko da, bermerik eskatu gabe; ordainketa aurreratu hau dirulaguntzari dagozkion jardunak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan egiten da.

13.2. Onartutako dirulaguntza banku transferentzia bidez ordainduko da, Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan ageri den entitatearen kontu korrontean dirua sartuz.

13.3. Dirulaguntza ez da ordainduko baldin eta erakunde onuradunak dirulaguntzaren bat jaso badu eta hura justifikatu gabe badauka horretarako epea amaituta. Ez da ordainduko, halaber, entitateari lehenagoko dirulaguntza bat itzultzeko eskatu bazaio eta ez badu itzuli.

14. artikulua.- Entitate onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea

Entitateak udalaren finantzazio horren publizitatea egin beharko du, Bilboko Udalaren logotipoa agertuta, inprimatzen dituen materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroigarri-plaketan, bitarteko elektronikoetan, ikus-entzunezkoetan zein idatzizko komunikabideetan argitaratutako iragarkietan. Argitalpenetan, gainera, edukiaren erantzukizunaren klausula bat ere jasoko da, hau dioena:

Bilboko Udalak diruz lagundu du proiektu hau. Hala ere, edukiaren erantzule bakarra entitate onuraduna da.

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango diete.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren % 10 itzuli beharko da.

Era berean, onuradunak hizkuntza ofizial biak —euskara eta gaztelania— erabili beharko ditu diruz lagundutako programaren edo jardueraren publizitatea egiteko prestatzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Halaber, diruz lagundutako jarduera dela-eta egiten diren sustapen-jarduera publikoak ele bietan egingo dira, lehenik euskara eta ondoren gaztelania erabiliz. Hala ere, hartzaileen eta komunikabidearen ezaugarrien arabera, komunikazioak euskara hutsez egin ahal izango dira.

Halaber, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista kontuan hartu beharko da aurkeztutako dokumentazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikulua eta Bilboko Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ordenantzaren 15. artikulua betez.

Erakunde onuradunek jasotako dirulaguntzen publizitatea eman beharko dute, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzetan. Lege horren 5.4 artikuluan xedatutakoa baliatuz gero, Dirulaguntzen Datu Base Nazionala izango da publizitatearen inguruko zereginak betearazteko bitarteko elektronikoak.

15. artikulua.- Azpikontratazioa

Entitate onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. artikuluan eta Dirulaguntzen Lege

Orokorreko 29. artikuluan ezarritakoa bete behar da, betiere kontuan hartuta, gainera, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak sartutako betebeharrak.

16. artikulua.- Programaren aldaketa

Programan funtsezko aldaketak egin ahal izateko, baimena eskatu behar zaio Bilboko Udalari, idatziz, udal erregistroaren bidez; Udalak beren-beregi eman behar du horretarako baimena.

Funtsezko aldaketak egiteko eskaerek arrazoituta egon behar dute, eta aurrekontuari eta kronogramari dagokienez dakartzan ondorioak zehaztu beharko dituzte. Gobernu Batzarrak kasuan kasuko sailari eskuordetzen dio aldaketa horiek baimentzeko eskumena.

Funtsezko aldaketatzat jotzen dira honako hauek:

- Helburu orokorretan edota espezifikotan eginiko aldaketak.
- Ehuneko 20tik gorako aldaketak onartutako aurrekontu-partidetan (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezingo diete zeharkako kostuei eragin), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez badute.

Baldin eta dena delako aldaketak programaren aurrekontua gutxitzen badu, Gobernu Batzarrak onetsi beharko du.

Dirulaguntzaren izaera edo helburuak funtsean aldatzen ez dituzten bestelako aldaketak, berriz, justifikazioa egiten denean onartu ahal izango dira, betiere onarpen horrek berekin ez badakar hirugarren batzuen eskubideak kaltetzea.

17. artikulua.- Uko egitea

Behin dirulaguntza emanda, entitate onuradunak dirulaguntzari uko egiteko eskatu ahal izango du Bilboko Udaleko erregistro orokorrean eskaera aurkeztuta.

Jarduera egiteko epea amaitu aurretik aurkeztu beharko da dirulaguntzari uko egiteko eskaera, eta behin dagokion saileko ordezkariak onartuta, eragina izango du. Jasotako diru-kopurua itzuli beharko du entitateak, hala badagokio.

Uko egiteak kreditu nahikoa libre uzten badu ukatutako beste eskabide bati (deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik) erantzuteko, laguntza ematen duen organoak erabaki ahal izango du, beste deialdirik egin behar izan gabe, dirulaguntza ematea zerrendako ondorengo erakunde eskatzaileari edo eskatzaileei, puntuazioaren arabera.

18. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Bilboko Udaletik jasotzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde pribatu nahiz publiko batzuenekin. Edonola ere, dirulaguntzetatik eta beste iturri batzuetatik lortutako finantzazioaren zenbatekoa ezin izango da izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

Pertsona edo erakunde onuradunek udal ebazpenaren ondoren proiektu bererako beste administrazio publiko batzuetatik dirulaguntzak jasotzen badituzte, Bilboko Udalari derrigorrean jakinarazi beharko diote, hilabete baino lehenago dagokion jakinarazpena jasotzen dutenetik.

19. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa

19.1. Justifikatzeko epea.

Emandako dirulaguntzak justifikatzeko epea 3 hilabetekoa izango da, programa amaitzen denetik edo, programa gauzatu eta gero ematen bada, dirulaguntza ematen denetik hasita.

19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa.

Dirulaguntza eskatzeko aurkeztutako aurrekontu osoa (% 100) justifikatu beharko da, eta ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik; horrela ezartzen du Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak.

19.3. Justifikazio sistema

19.3.1. Entitate onuradunak, bestalde, programa bakoitzean egindako gastua justifikatzeko kontua aurkeztu beharko du, hemen zehazten den moduan.

Justifikatzeko kontuak honako hauek jasoko ditu:

- a) Programa betearazteko egin diren jardueren memoria eta emaitzak. Horrek guztiak bat etorri beharko du eskaera egiten den unean aurkeztu den programarekin.
- b) Justifikazioko kontuaren barnean, jatorrizko dokumentazioarekin batera, egindako gastuen zerrenda zenbakitua erantsiko da hurrenkera korrelatiboan, onartutako aurrekontuan agertzen den moduan. Zerrenda hori eredu honen arabera osatuko da: faktura- edo dokumentu-zenbakia, entitate ordaintzailea, data, partida, kontzeptua, entitate hornitzailea, zenbatekoa eurotan. Zerrenda horretan agiri hauek erantsiko dira, proiektuaren zenbatekoa osatu arte: nominak (gastua sortutako guztizkoaren gainean kalkulaturik) eta Langileen Zerrenda Nominala (LZN), egiaztagiria eta faktura originalak edo notarioak konpultsatutako kopia edo balio juridikoa daukan beste edozein agiri (Nazioarteko Agentziak, kasu, ezaugarri bereziak baitituzte). Proiektuaren aurrekontuaren % 100 jatorrizko fakturen bidez justifikatu behar da. Jatorrizko dokumentazio hori berreskuratu nahi izanez gero, fakturen kopia ere entregatu behar dira, hurrenkera berean.
- c) Programa gauzatzeari dagozkion gastuen eta diru-sarreraren balantzea, udalak emandako ereduari jarraituta.
- d) Programa gauzatzeari dagozkion fakturak, udalak emandako ereduari jarraituta.
- e) Deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorraren 14.2. artikulua ezarritakoarekin bat, programa gauzatzeko aurreikusitako epe barruan egindako gastuak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak. Horretarako, hauek bereiziko dira:

- Programa gauzatzearekin zuzenean lotutako kostuak; horiek osorik justifikatu beharko dira; horretarako, fakturak eta frogak-balio baliokidea duten bestelako dokumentuak aurkeztu behar dira.

Gastuak justifikatzeko dokumentuek honako datu hauek jaso beharko dituzte beti:

- Entitate onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren xedearen deskribapena. Zuzeneko zerikusia izan beharko du programa betearaztearekin.

Era berean, justifikatzen den programari buruzkoak baino ez dira izango justifikazio-agiriak.

Salbuespen modura, enpresaburuak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako ordainsaria erakusten duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailearen identifikazio-agiriaren kopiarekin batera (NAN, AIZ edo pasaportea). Ordainsaria 200 euro baino handiagoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

Langile-gastuak justifikatzeko, nominak (sortutako guztira) eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztuko (LIZ, langileen izen zerrenda) dira. Nominetan egotzitako zenbatekoa sortutako guztizkoaren gainean kalkulatu behar da.

- Zeharkako kostuak direnean, berariaz eskatu ezean, ez da ezelako justifikazio-agiririk aurkeztu beharko. Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari egotzi beharko dizkio entitate onuradunak, arrazoizko neurrian, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauarekin bat etorriz eta, betiere, kostu horiek jardura gauzatzen den aldikoak badira. Jarduerari dagokion kostua ez da izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa.

Justifikazioa egiteko, dirulaguntza emateko baliatutako aurrekontuan onuradunak berak deklaraturikoa izango da zeharkako kostuetan onartuko den ehunekoa eta, hala, egiaz justifikatutako zuzeneko gastuei aplikatuko zaie ehuneko hori.

- f) Diruz lagundu daitekeen kontzeptuaren zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritakoa (zerbitzuak eta horniketak 15.000 euro eta BEZa, obrak 40.000 euro eta BEZa) baino handiagoa denean, erakunde onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile desberdinei obra egiteko konpromisoa hartu baino lehen, zerbitzua eman baino lehen edo ondasuna eman baino lehen.

Bestalde, justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntza-eskaeran aurkeztu beharreko eskaintzen arteko hautua efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta, ekonomikoki onuragarriena den proposamena hautatzen ez bada, memoria batean justifikatu beharko da, espresuki.

19.4. Justifikaziorako beste betebeharrak.

Memorian hizkuntza edo irudi ez-sexistak erabili beharko dira. Gainera, baloratu eta puntuatutako zeharkako politikei buruzko datu hauek aurkeztu beharko dira:

19.5. Justifikaziorik ez edo justifikazio nahikorik ez.

Justifikazio-betebeharra ez betetzeak, nahikoa ez justifikatzeak edo 14. artikuluan aipatzen den publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak, osorik edo zati batean, itzultzeko betebeharra, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

20. artikulua.- Dirulaguntzen publizitatea

Urtea bukatu aurretik, emandako eta ukatutako dirulaguntza guztiak argitaratuko dira udal-webgunean.

Era berean, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez ere egingo da dirulaguntzen publizitatea, Dirulaguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.